



Surfeko Ekoberrikuntza V. Lehiaketa

SURF ECOINNOVATION COMP

LEHIAKETAREN OINARRIAK

LEHIAKETAREN XEDEA

Fomento de San Sebastián, SAK Unibertsitateekin (EHU, Mondragon, Tecnum eta Deustu) lankidetzan **“SurfECOinnovationComp” Surfeko Ekoberrikuntza Lehiaketaren** V. edizioaren deialdia egin du.

Surfeko Ekoberrikuntza Lehiaketaren V. edizioaren xedea da surfean jasagarritasuna bultzatzea, sektoreari balioa emateaz gain, jasagarritasunaren alde egiten duten produktu, prozesu eta ekimen berrien garapena eta merkaturatzea sustatuz.

SurfECOinnovationComp lehiaketak berrikuntza irekiaren prozesuak unibertsitateen enpresara gertura nahi ditu, bi helbururekin: bata, unibertsitateko ikasleentzat garapen profesionala izan dezakeen sektore bat eza-gutzera ematea eta, bestea, berrikuntza hori gaur egungo industriak beretu ditzakeen etorkizuneko enpresa ekimenetan edo produktu berritzailetan birlakatzea.

LEHIAKETAREN EDUKIA

Surfeko Ekoberrikuntza Lehiaketaren V. edizioak parte hartzaileei formazio saio batzuen bidez jakinaraziko zaizkien eduki batzuk izango ditu. Saio horien bidez, proiektuei proposamen berritzaileak osatzen lagunduko zaie. Eduki horiek bi formatu bereizitan antolatuko dira:

• **Good Karma Projects antolakundeak surfari eta jasagarritasunari buruz eskainiko duen hastapen saioa:** Izena emateko epea amaitu ondoren, talde guztienezko hastapen saio bat eskainiko da (online formatuan) eta, bertan, surfaren sektorearen gaur egun-

go egoeraren berri emango da eta gaur egun dauden hainbat erronka eta aukera nabarmenduko dira, proiektuei behar duten testuingurua emateko helburuarekin.

• Laguntza saio pertsonalizatuak:

Proiektu bakoitzak Good Karma Projects antolakunde-ko Ride & Respect taldea bere eskura izateko aukera izango du ordu erdiko laguntza saioen bidez. 2022ko otsailaren 15etik 2022ko ekainaren 7ra (lehiaketan proposamenak aurkezteko azken eguna) bitarte beren proposamenak egiten ariutako diren taldeei laguntzeko diseinatuta egongo dira saio horiek. Proiektu bakoitzak, gehienez, laguntzeko 4 saio jaso ahal izango ditu.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

a) EHU, Mondragon, Tecnun eta Deustu unibertsitateetako 3. eta 4. mailako eta masterretako ikasleek parte hartu ahal izango dute. Lehiaketan parte hartu nahi duten adarretakoak izango dira ikasle horiek. 1. eta 2. mailako ikasleek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta taldean hirugarren edo laugarren mailako norbait badago. 3. eta 4. mailako ikasleentzat joko dira karre-rako 3. eta 4. mailako irakasgaietan % 50etik gora matrikulatuta dauden ikasleak.

b) Ikasle bakoitzak edo ikasle taldeek nahi duten kategorian parte hartu ahal izango dute eta nahi adina proiektutan aurkeztu ahal izango dira. Ikasle taldeak mistoak izan ahalko dira (unibertsitate desberdinetakoak).

c) Proiektu bakoitza unibertsitate antolatzaile bateko irakasle batek gainbegiratu du edo irakasle baten tutoretzapean egongo da, kontuan izan gabe zer mailatan eta zer irakasgai ematen duen.

Surfeko Ekoberrikuntza V. Lehiaketa

SURF ECOINNOVATION COMP

d) Parte hartzaile bakoitzak zehaztuko du zein kategoriatan parte hartu nahi duen. Parte hartzeko kategoria hauek ezarri dira:

- Industria jasagarria; produktuak eta prozesuak.
- Surfaren kudeaketa jasagarria kirol gisa; guneen erabilera, ekitaldiak, jarduerak, surfarien inpaktua, etab.
- Surfa gizartea aldatzeko tresna gisa; jasagarritasun sozioekonomikoa eta ingurumen jasagarritasuna.

e) Talde bakoitzak gutxienez bi partaide izango ditu eta talde bakoitzak, gehienez, bost partaide izango ditu.

f) Nahitaezkoa izango da hastapen saioan parte hartzea, baita proiektuen laguntza saioetan parte hartzea ere. Saio horiek online eskainiko dira eta gutxienez bi laguntza saiotan parte hartu beharko da, eta proiektu bakoitzak gehienez lau saio jaso ahal izango ditu.

g) Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauetako baldintza, betekizun eta betebeharrak guztiak onartzen direla.

h) Erakunde antolatzailearen irizpidea nagusituko da beti zalantzaren bat egonez gero.

Lehiaketa martxan jarriko da, baldin eta gutxienez 10 proiektu izena ematen badute. Ez badute gutxienez 10 proiektu izena ematen, erakunde antolatzaileak ahalmena izango du lehiaketa amaitutzat jotzeko edo ez egintzat jotzeko.

Debekatuta egongo da eta ez da onartuko Donostia Sustapeneko pertsona juridikoek edo langileek edo unibertsitate laguntzaile baten bateko langileek parte hartzea, proiektuak gainbegiratzeko lagunduko duten irakasleek izan ezik. Era berean, ezingo dute parte hartu 18 urtetik beherakoek.

EPAIMAHAIA

a) Donostia Surfcity Klusterreko enpresetako eta Good Karma Projects antolakundeko ordezkariak osatuko duten Hautaketa Batzorde bat egongo da, eta sarrera ukatzeko eskubidea erreserbatuta izango du batzorde horrek, baita aurkeztutako proiektuek parte hartzen duten kategoriak aldatu ahal izatekoa ere, proiektu horiek aurkeztu dituzten lehiakideei aurrez jakinarazita.

b) Aurkeztutako proiektuak Donostia Surfcity Klusterreko enpresetako eta Good Karma Projects antolakundeko ordezkariak osatutako epaimahaia eskatutako dokumentazioa entregatzean ebaluatuko dira.

SARIA

a) MILA (1.000,00 €) EUROKO sari bat jasoko dute hiru proiektu onenek, parte hartzen duten kategorian konfiantza izan gabe, hau da, kategorian berdineko hiru proiektu irabazleak izan daitezke.

b) Gainera, proiektu irabazleak proiekturako tutoretza / aholkularitza jasoko du Donostia Sustapenaren Donostia Surfcity Klusterreko enpresen eta Good Karma Projects antolakundearen eskutik.

BALORAZIO IRIZPIDEAK

Proiektuak oinarri hauetako 3.d) apartatuko kategorietako baten batekoak izan beharko dute eta Good Karma Projects antolakundeak surfari eta jasagarritasunari buruz eskainiko duen hastapen saioan adieraziko dituen industriaren ingurumeneko erronketako baten bat ebatzi beharko dute. Horien artean hauek nabarmentzen dira: Prozesu produktiboak, oholen fabrikazioa, surfarien inpaktua (surf egiterako garaian), oholen erabilera bizitzaren amaiera, etab.

Surfeko Ekoberrikuntza V. Lehiaketa

SURF ECOINNOVATION COMP

Gainera, proiektuak ez du lehenago dibulgatuta egon behar eta originala izan behar du.

Halaber, alderdi hauek baloratuko dira:

- Ikuspegi "glokala"; irismen globala duten baina toki-ko jarduera eremua duten proiektuak.
- Idea berritzailea.
- Proiektuaren aurkezpena eta irudia.
- Surfaren sektorearen bilakaerari egiten dion ekarpena.
- Erabiltzaileek erosotasun handiagoa izateko egiten duen ekarpena.
- Proiektuaren bideragarritasuna.
- Proiektua martxan jartzeko eta merkatu errealean proiektua ezartzeko zailtasuna.
- Proposatutako irtenbideari buruzko azalpen argia.
- Taldeen diziplinartekotasuna.

1etik 5era bitarteko puntuazio sistema bat ezarriko da proiektu bakoitzean baloratu beharreko aldagai bakoitzeko. Puntuazio handiena 5 izango da eta txikiena 1. Epaimahaiaren arabera, proiektuek ez badaukate behar besteko kalitaterik, epaimahaiak hutsik deklaratzeko eskubidea izango du.

IZENA EMATEKO PROIEKTUAK AURKEZTEKO, EPAIMAHAIK EPAIA EMATEKO EPEAK.


- Dokumentazioa webgune honetan egongo da kontsultatzeko eskuragarri: www.fomentosanbastian.eus, **2021eko azaroaren 15etik** aurrera.
- Izen emateko epea irekita egongo da **2021eko azaroaren 15etik 2022ko otsailaren 11ra arte** (ostirala). Izen ematea oinarri hauetan erantsi den ereduaren

arabera taldeko kide guztiek sinatutako idatzi baten bidez formalizatuko da. Izena emateko formularioa helbide elektronikoa honetara bidaliko da: fomentoss@donostia.eus eta gaia hau izango da: "Surfaren ekoberrikuntza lehiaketa".

c) Proiektuek izena eman ondoren, **2022ko otsailaren 15ean**, Good Karma Projects irabazi asmorik gabeko antolakundeak surfari eta jasangarritasunari buruzko hastapen saio bat eskainiko du. Antolakunde honek ingurumen hezkuntzako eta ingurumenarekiko kontzientziatzeko proiektuak eta ekimenak garatzen ditu. Kasu honetan, ohola erabiltzen den kirolen jasangarritasunera bideratutako bere Ride&Respect proiektuaren bidez, surfaren ingurumen erronkak eta problema-tikak adieraziko ditu eta, laguntza saioen bidez, taldeek aholkatzeko prest egongo dira lehiaketara proposamenak aurkeztu ahal izateko.

d) Proposamenen/proiektuen behin betiko aurkezpena: 2021eko azaroaren 15etik 2022ko otsailaren 11ra bitarte izena eman ondoren eta lehiaketaren antolakundeak izen ematea egiaztatu ostean, taldeek lehiaketako proiektuak aurkeztu beharko dituzte **2022ko ekainaren 7a** baino lehen. Proiektuak euskarri hauetan aurkeztuko dira:

- A2 posterra, proiektuaren ezaugarriak azaltzeko, CANVAS formatuan oinarrituta (1. ERANSKINA). Ez da osoki jarraitu behar eta proiektu bakoitzaren beharren arabera izango da.



Surfeko Ekoberrikuntza V. Lehiaketa

SURF ECOINNOVATION COMP

- Proiektuaren memoria, gehienez 10 orrialdekoa, eta zehatz-mehatz azalduko dira CANVAS ereduko atalak.
- Proiektuaren defentsaren bideoa non taldeko kide guztiek parte hartuko duten. Bideoak gehienez 4 minutu iraungo du.

Euskarri horiek helbide elektroniko honetara bidaliko dira: fomentoss@donostia.eus, eta gaia hau izango da: surf berrikuntzaren lehiaketa.

e) **2022ko ekaina**: epaimahaiaren epaia eta sari banaketa. Saria publikoki jakinaraziko da 2022ko ekainean zehar.

Epe hauetako baten bat ez bada betetzen, lehiaketa uzten dela esan nahiko du. Lehiaketaren epaia ezeztazina izango da.

Parte hartzaile guztiek onartzen dute "SurfEcoinnovationComp" surfeko Ekoberrikuntza Lehiaketaren" oinarriak irakurri eta ezagutzen dituztela eta, beraz, berariaz onesten dute horietan ezarritakoa. Oinarri hauetako arau/baldintza/betekizunetako baten bat interpretatzeari buruzko zalantzaren bat badago, beti antolakundearen irizpidea nagusituko da.

JABETZA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK.

Talde parte hartzailek arduratu beharko dute eta bermatu beharko dute lehiaketan aurkeztutako proiektuak berriak eta originalak izatea. Inola ere ez dira onartuko osorik edo zati batean ideiez, berregiteez, antzerakoez osatutako proiektuak, zeinen jabetza intelektual, egiletasuna eta originaltasuna ez diren lehiaketako talde parte hartzailearenak.

Talde parte hartzaileetako kideak aurkeztutako proiektuaren sortzaileak, egileak diren aldetik, antolakundeari (Donostia Sustapena), oro har, ahalmena lagatzen diote eta baimena ematen diote, helburu guztietarako eta zuzenbidean onartzen den erarik zabalenean,

proiektuak argitaratzeko eta azaltzeko edozein bideren bidez eta, oro har, publikoaren eskura jartzeko haridun prozedurekin edo hari gabeko prozedurekin hala Espainiarako nola munduko gainerako herrialdeetarako, egile eskubideari legeak eskaintzen dion babes epe osorako.

DATU PERTSONALEN BABESA

Datuen babeserako indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, jakinarazten da adierazitako datuen tratamendua Donostiako Udalak egingo duela, tratamenduaren erantzulea izango baita, eta Donostia Sustapenak kudeatuko dituela tratamenduaren arduraduna baita.

Tratamenduaren helburua da surf oholen berrikuntza lehiaketako partaidetza tramitatzea eta kudeatzea.

Tratamenduaren zilegitasun oinarria DBEEOren 6.1.b) artikulua da, tratamendua beharrezkoa da interesduna alderdia (lehiaketako oinarriak onartzea) den kontratu bat gauzatzeko, DBEEOren 6.1.e) artikulua: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren erantzuleari emandako botere publikoen izenean egindako eginkizun bat betetzeko: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Erregimenaren Oinarriari buruzkoa eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

Datu pertsonalak lehiaketa honetan parte hartzen duten hainbat erakunderi jakinarazi ahal izango zaizkie, esaterako, unibertsitate laguntzaileei (EHU, Mondragon, Tecnun eta Deusto), baita Donostia Surfcity Klusterrekoak diren eta epaimahaia osatzen duten erakundeei ere. Erakunde horiek esteka honetan kontsulta daitezke: <http://www.fomentosansebastian.eus/eu/surf-city-donostia/klusterrera-atxiki-nahi-dut>.

Surfeko Ekoberrikuntza V. Lehiaketa

SURF ECOINNOVATION COMP

Ez daude xedatuta hirugarrenentzako datuen jakinarazpen gehiago, legezko betebeharrak denean izan ezik, eta ez dago xedatuta datuen nazioarteko transferentziarik.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak behar den denboran gordeko dira, bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko.

Artxiboen eta dokumentazioaren araudian ezarritakoa aplikatuko da.

Ukitutako pertsonak datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatze eta datuak babesteko indarrean dagoen araudian jasotako beste eskubide batzuk baliatu ahal izango dituzte, hala dagokionean, Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzuan (Ijentea kalea 1, 20003 Donostia).

Zure eskubideak baliatzean ez badizute behar bezala erantzun, Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71 - 3. solairua- 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, alde aurretik eta aukeran, Donostiako Datuak Babesteko ordezkariarekin harremanetan jar zaitezke: dbo@donostia.eus.

BALDINTZA OROKORRAK

Lehiaketa honetan parte hartzeak ez du esan nahi parte hartzaileek ondasunen bat edo zerbitzuren bat erosi edo eskuratu behar dutenik.

Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du oinarri legal hauek onartzen direla.

Antolakuntzak ez du erantzukizunik izango irabazleari saria esleitzen zaion unetik aurrera eta, beraz, horiek ezingo dute ekintza legalik hasi antolakuntzaren aurka saria gaizki erabiltzetik sortutako arazoirekin batentzat.

Donostia Sustapenak beretzat gordetzen du lehiaketa hau edozein unetan eteteko, aldatzeko eta bertan behera uzteko eskubidea. Horren ondorioz, parte hartzaileek ez dute izango inolako eskubiderik edo kalte ordainik.

Sustapen hau indarrean dagoen Espainiako legediak arautzen du.

Donostian, 2021eko azaroaren 15ean.

